

HIZKUNTZA-EKOLOGIA

Euskarak ere ekosistema osasuntsua behar du, bizirik iraungo badu

📁 **EUSKARA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Hizkuntzak ez dira berez jaio, bizi eta hiltzen. Inguratzen dituen ekosistemak edo komunitateak huts egiten dielako desagertzen dira; ez direlako betetzen hizkuntza batek bizirauteko eta iraunkorra izateko behar dituen baldintzak. Hizkuntza-ekologiaren ideia hari horri tiraka jarri zen mahai gainean, eta badauka nondik tira egin.

Hizkuntza ekologiaren ideia Einar Haugen hizkuntzalari estatubatuarrek jarri zuen mahai gainean, 1972. urtearen bueltan. Ordurako, Haugen abisu ematen hasia zen munduko hizkuntzen galera izugarria gertatuko zela gauzak aldatzen ez baldin baziren. Ekologia bide propioa egiten eta jendartean onarpen handia lortzen hasia zen. Haugenek ekologiak ibilitako bide horretako proposamen interesgarriak ekarri zituen hizkuntza aniztasunaren alorrera.

Hizkuntza eta ekologia lotzen dituen paradigma horren arabera, hizkuntzak bere ingurumen naturalarekin duen harremana begiratu eta zaindu egin behar da; alegia, hizkuntza bere ekosisteman ulertu behar da. Eta hizkuntzaren ekosistema hitz komunitateak osatzen du, inguratzen duen jendarteak. Hari horretatik tiraka, espezie bizidunek ekosistema osasuntsuak behar dituzten bezala, hizkuntzek ere ekosistema osasuntsuak behar dituzte.

Bestetik, hizkuntzak harremanetan daudenean sortzen diren talkak ere arretaz begiratzen ditu hizkuntza-ekologiak. Izan ere, askotan hizkuntza boteretsuak hizkuntza txikiagoa zapaltzen du, eta horrek kalte handiak dakartza. Horren aurrean, hizkuntzen arteko harreman ekologiakoak defendatzen ditu aipaturako paradigmak.

Baina hizkuntza-ekologiak, batez ere, galdera potolo bat jartzen du mahai gainean: nola da

posible naturarekin hain kezkatuta dagoen jendarte hain axolagabea –eta, batzuetan, krudelak– izatea berak sortu dituen hizkuntzekin? Izan ere, hizkuntzak ez dira berez jaio, bizi eta hiltzen. Inguratzen dituen ekosistemak edo komunitateak huts egiten dielako desagertzen dira; ez direlako betetzen hizkuntza batek bizirauteko eta iraunkorra izateko behar dituen baldintzak.

Eta ingurumenean dagoen aniztasuna zaintzea bezain ga-

Hizkuntza-ekologiaren arabera, hizkuntzak bere ingurumen naturalarekin duen harremana begiratu eta zaindu egin behar da, hizkuntza bere ekosisteman ulertu behar da. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

rrantzitsua da hizkuntzen aniztasuna zaintzea.

Datuak serio hartzeko modukoak dira. Munduan 6.500 hizkuntza inguru hitz egiten dira, baina erdia baino gehiago galtzeko bidean daude. Egoerak ez dira orekatuak, ez dira justuak eta errealtate horien aurrean «herriar aktiboak» izatea eskatzen du hizkuntza-ekologiak. Baina nola egiten da hori? Zein balio etiko erabiltzen dira horretarako? Soziolinguistika Klusterrak azaldu dizkio GAUR8ri balio etiko horietako batzuk:

ANIZTASUNA

Aniztasunak jendarteari etorkizunaren aurrean egokitzeko gaitasuna ematen dio. Zenbat eta anitzagoak izan gizarteak, orduan eta aukera gehiago izango dituzte etorkizunari aurre egiteko. Horrek esan nahi du hizkuntza guztiek balio unibertsal berbera dutela; ez da zilegi esatea hizkuntza batzuek besteek baino balio handiagoa dutela, egoekiagoak direla, politagoak direla, gaur egun moldatzeko

gaitasun handiagoa dutela... Hizkuntza guztiek balio unibertsal berbera daukate.

Era berean, horrek hizkuntzen arteko hierarkiak alde batera utzi beharra ekartzen du. Gizartean, administrazioan, botere publikoetan eta esparru guztietan oso garbia da hizkuntzen arteko hierarkia. Eta hizkuntza ekologiaren ikuspegitik, hierarkiak alde batera utzi behar dira.

BERDINTASUNA

Izenak batzuetan despistatu egiten duen arren, berdintasunari buruz hitz egitean ez da esaten denak berdindatatu behar direnik. Kasik, alderantziz: egoera desberdinetan dauden hizkuntzak berdindatatu behar ez da zilegi, ez da berdintasuna, hori injustiziatik gertuago dago. «Beraz, egoera desorekatuan dauden kasuetan, neurriak hartu behar dira aukera berdina izan ditzaten, bai gizakiek bai hizkuntzek». Hau printzipio garrantzitsua da, guztiei eragiten dielako; bai hizkuntza handiak hitz egiten dituztenei, baita egoera ahulagoan dauden hizkuntzak hitz egiten dituztenei ere.

«Oso garrantzitsua da, jende guztiak konturatu behar duela ko zilegi dela neurriak jartzea aukera berdina izateko. Neurri positiboak, sustatzaileak, orekatzaileak... Diskriminazio positiboa deiturikoa, hainbat esparrutan egiten dena, hizkuntzen arloa ekartzea ezinbestekoa da». Ekologian badira horrelako neurrien adibide ugari; gune bat galtzeko arriskuan dagoenean, egoera oso kaskarrean dagoenean, hori babesteko eta sustatzeko neurriak hartzen dira.

ELKARTASUNA

Elkartasunak egoera ahulean dagoenaren aurrean nolabaiteko jarrera bat agintzen du, bestearenganako enpatia. «Hau oso garrantzitsua da hizkuntza indartsuagoak eta ahulagoak elkarrekin ekosistema berean daudenean. Egoera horietan, pertsonen arteko sentimenduak eta enpatia aktibatu beharra dago. Elkartasuna da egoera desberdina bizi dutenen arteko soka hori, eta indartsuagoen eta



Aniztasunak jendarteari etorkizunaren aurrean egokitzeko gaitasuna ematen dio. Zenbat eta gizarte anitzagoak izan, orduan eta aukera gehiago etorkizunari aurre egiteko

Berdintasuna aipatzean ez da esaten denak berdin tratatu behar direnik; egoera desberdinetan dauden hizkuntzak berdin tratatzea ez da berdintasuna, injustizia akaso

ahulagoen aktibazioa eskatzen du, bi aldeena».

Hizkuntza indartsuagoa, baliabide ekonomiko handiak dituen, sustrai sendoak dituen bestea baino gehiago dela pentsatzea pentsaera okerra da, hizkuntza-ekologiaren arabera.

ERANTZUKIZUNA

Norbanakoak jendartearen aurrean erantzukizun bat dauka. Eta hori hizkuntzaren esparrura ere ekarri behar da. «Norberaren eskubidearen eta hizkuntzen etorkizunaren arteko oreka bat topatu behar da. Hori konpromiso bat da, ekologiatik datarren konpromisoa».

SUBSIDIARITATE PRINTZIOPIOA

Bertakoak egin dezakeena ez dezala kanpoko batek egin. Bertako hizkuntzak egin dezakeena ez dezala beste indartsuago batek edo kanpoko batek egin. Honek, finean, tokian tokikoa aldarrikatzen du. Bertakoa garatzea eta bertakoa nazioartekotzea. Pentsamendu lokalaren filosofia dago honetan. «Honek sendotu egiten du gure ardura txikitik handira».

ZUHURTZIA

«Oso balio arduratsua da. Etor-kizunari eskaintza bat egin behar diogu, guk jaso genuen bezala, hizkuntza besteei eman behar diegu. Erantzukizun hori daukagu. Eta horregatik, hartzen ditugun erabakiek zurrak izan behar dute. Hurrengoek ez dezatela pentsa guk hartutako neurriek hankaz gora jarri dutela beren etorkizuna. Ez baldin badakigu hartuko ditugun neurriek kaltea edo onura dakarten, kontuz. Zuhurtzia etorkizuneko belaunaldien aurrean». Horrek iraunkortasunaren kontzeptuaren inguruan jira eta buelta ibiltzea eskatzen du, sakontzea eta egoki erabiltzea.

DIKOMA ETA EKOLINGUA, SOLASALDIA ETA IRITZI TRUKEA BULTZATZEKO KARTA JOKOA

Hizkuntza-ekologiaz ari garenean zertaz ari garen jakitea, horren inguruko diskurtsoak osatzea eta horiek sozializatzea garrantzitsua izan daiteke euskararen biziraupen eta iraunkortasunari begira. Hala uste dute, behinik behin, Eusko Ikaskuntzak eta Soziolinguistika Klusterrak eta helburu horri begira garatu dute 2012-2014 urte bitartean DiKomA eta EkoLingua solas-jokoaren proiektua.

Jokoa udalerrri mailan herritarrekin, taldeka, aritzeko pentsatuta dago, eta finean, hizkuntza-ekologiaren balio eta argudioen inguruko eztabaida sustatzea du helburu. Zertarako? «Hizkuntza komunitatea diskurtso mailan ahalmentzeko, indartzeko. Alegia, herritarren argudioak sendotzen laguntzeko, egunerokoan sortzen zaizkien egoera linguistikoei ahalik eta erantzun egokiena ematen laguntzeko», azaldu zuten solas-jokoaren aurkezpenean.

Karta joko bat da, taldeka jokatzeko eta egoera linguistiko desberdinak jartzen ditu mahai gainean. Eta horien aurrean har daitezkeen jarrera desberdinak.

Hizkuntza komunitateko era guztietako herritarrei zuzendutako jokoa da, 16 urtetik gorakoentzat, batez ere. Parte-hartzaileen arteko interakzioa bultzatzen duenez, taldeko kideek egiten dituzten ekarpenen sakontasun mailak mugatuko du gogoetaren tamaina eta norabidea.

Koloretako karta batzuen bidez, jokalariei egoera desberdinak aurkezten dizkie jokoak. «Batzuek diote ez dagoela arrazoirik inork inor hizkuntza nagusi bat erabiltzera bultzatzeko. Ados zaude?». «Mundu gero eta globalago honetan, dozena bat hizkuntzarekin molda bagintezke, zertarako xahutu horrenbeste energia hizkuntza txikietan?». «Azaldu zer sentsazio sorrazten dizun Katalunian katalanei katalanez hitz egiten entzuteak eta Asturiasen asturierara». «Aimar, 14 urte: Ikaslea naiz. Eta euskararena rolo hutsa da. Eskolan klase guztiak euskaraz, eta andereñoak plastada ematen euskaraz egiteko. Baina gelatik kanpo erdaraz egiten dugu denok, gure modura hitz egin dezakegulako...». «Joxe Manuel, 64 urte: Jubilatu berria naiz, baina ez euskararen aldeko borrokatik. Francoren garaian zapalkuntza gogorra sufritu genuelako, baina gero ere egurra jaso dugu: euskal egunkaria itxi, euskaldunak auzipetu... Euskalgintza beti dago erasoen beldur...».

Eta koloretako kartek mahai gainean jarritako galdera, jarrera eta ideietatik abiatuta eztabaida sana bultzatzea da helburua, argudioak josten asmatzea eta herritarrek hizkuntza komunitate gisara behar dituzten baliabideak eskura jartzea. Solasaldia eta iritzi-truke lasaia, euskarak arnasa hartzeko eta bizirauteko beharrezkoa duen ekosistema sana ziurtatze aldera.



Iñaki Marko (EHU) solas-jokoaren metodologiaren inguruko azalpenak ematen. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

BELEN URANGA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

«Munduko hizkuntzen etorkizuna ez da hizkuntza txikien arazoa soilik, munduko biztanle guztiena baizik»



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Ekologiak defendatzen duen eta proposatzen duen jendarte eredu berrian, «ezinbestekoa» da hizkuntzen eta kulturen aniztasuna integratzea. Horrela uste du hizkuntza-ekologiaren bidean konfiantza handia duen Belen Urangak, Soziolinguistika Klusterreko kideak.

Zergatik hartu da ekologiaren eredua?

Egia da ekologiak XX. mendean egin duen bilakaera oso deigarria dela. Natura babesteko kontzeptutik hasten da eta

gizarte mailako aldaketa bat proposatzera iristen da. Eta hori gertatzen da bai zientziak bere lana egin duelako, baina baita gizarteak erantzun egin diolako eta hori babesteko sekulako lana egin duelako ere. Ja kontua ez da natura babestu beharra dagoela bakarrik; gizarte eredu berri bat proposatzen da, mundua dagoelako arriskuan. Hor kokatzen da hizkuntza ekologia. Eta esaten du ez dela posible naturarekin hain arduratsua eta sentsibilizatuta dagoen gizartea –eta

hori oso ona da– hain ezjakina izatea hizkuntzen eta kulturen galeren aurrean.

Eta galera garrantzitsua da hori.

Berez, portzentaietan larriagoa da galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen eta kulturen egoera une honetan. Eta ez dago behar bezalako kontzientziazorik. Ekologiaren baloreak aprobetxatu dira eta ekologiak berak daukan garapen eredua, proposatzen dituen hiru zutabeak, oinarri hartzen dira: ekonomia ekitatea, naturaren zaintza eta gizarte

garapena. Hartara, hizkuntza ekologiak defendatzen du gizartearen garapen horretan ezinbestekoa dela hizkuntzen eta kulturen iraunkortasuna ziurtatzea, bestela herren geldituko dela. Ekologiak duen eredu horretan, hizkuntzen eta kulturen iraunkortasuna txertatu behar da. Hizkuntza eta kultur aniztasuna, bai munduan bai norberaren komunitatearen baitan. Joan-etorriko gauza da.

Hizkuntza ekologiak ekologiatik ekarri ditu ideiak, aztertzeko moduak eta proposamenak, baina nolabait eskatzen da, erakutsi nahi da, ekologiaren gizarte eredu berri horrek derrigor integratu behar dituela hizkuntzen eta kulturen aniztasuna eta iraunkortasuna.

Gure komunitatean entzuten diren diskurtsoak eta ikusten diren jarrerak balio horietatik urrun samar daude, ezta?

Bai, konfrontaziotik gertuago gaude. Oso normala iruditzen zait, honainoko bidea oso gogorra izan delako, eta ez gure herrian bakarrik. Gaur egungo hizkuntzen egoera ez da berez etorri den zerbait, hizkuntza handietako komunitateek egindako ibilbide historiko baten ondorioa da, zapalkuntzaren ondorioa. Hori ukaezina da eta zaila da hori sufritu duen indigena batek, esaterako, bere hizkuntza konfrontazio horretatik aparte ikustea.

Eta Euskal Herrian berdina gertatzen da. Hori ahaztu gabe, akaso etorkizunari aurre egiteko paradigma berri batzuetan pentsatzen hasi beharra dago. Egindako mina aitortu behar da, aztertu behar da, baina etorkizuna elkarrekin egin beharra dago. Gaur egun, inoiz baino gehiago, hizkuntza aniztasuna errealtate bat da eta hori kudeatzen asmatu beharra dago. Hitzunak eleanitzak izan daitezke, baita gizarteak ere. Baina gakoa da nola lortu hori bertako hizkuntzaren iraunkortasuna bermatuz. Horretarako bi gauza hartu behar dira kontuan: hizkuntza ahulagoa hitz egiten dugunok –gure kasuan, euskara– oso kontziente izan behar dugu zein paper jokatzen dugun, aktibatu beharra daukagu, geure hizkuntza ondorengoei pasatu behar diegu... Baina, horrez gain, gure hizkuntza hitz egiten ez dutenen konplizitatea ezinbestekoa da. Eta konplizitateak esan nahi du bestiak, hizkuntza indartsua hitz egiten duenak, bere jarrera aldatu behar duela. Bere erosotasun horretatik mugitu egin beharko duela. Baina ezinbestekoa

izango da dauden hizkuntza guztien hiztunak mugitzea, jarrerak aldatzea. Pentsa, ingelesa erabat gainera etorri zaigu, ia-ia horren inguruan hausnartzeko denborarik izan gabe.

Gurea bezalako herri eleanitzean ez da samurra hizkuntzen arteko elkarbizitza sana, ezta?

Lan handia dago egiteko, alde guztietatik gainera. Ezagutza soziolinguistikoko gutxieneko bat zabaldu beharko litzateke, denok jakitun izan gaitezen errealitate linguistikoa ez dela norberak egiten duen hori bakarrik. Ez du balio esatea ‘ni nire ezagutzarekin moldatzen naiz’, ez baita egia. Aukerak beti ez dira libreak izaten, beti daude oso baldintzatuak. Zer gertatzen den erakutsi behar da eta, horren aurrean, mekanismoak aktibatu behar dira: ‘Nik hizkuntza bat hitz egiten dut eta, zuk, bestea. Nola moldatu gaitezke? Nola konpondu dezakegu egoera?’. Errespetuzko jokaerak sustatu behar ditugu.

Horrez gain, euskararen alde egin beharko da. Hizkuntza ofiziala baldin bada, beste hizkuntzen parekoa, garrantzi berekoa, euskara ikasi egin beharko da. Adostu egin beharko ditugu horretarako moduak, eta agian beste bide batzuk landu beharko ditugu euskara ez dakienak ikus dezan euskara ikastea onuragarria dela, bere mesedetan dela, eta hizkuntza berri bat ikasteak ez duela esan nahi beste bat baztertu behar dugunik. Batzea dela kontua, ez bata bestea zapaltzea. Baina ez da borondate kontua bakarrik, euskarak abantailak dakartzala ikusarazteko baldintzak sortu behar dira; abantaila sozialak, ekonomikoak, kulturalak... Ekologiak norbera ukitzen du, baina administrazioak mugitu egin behar du. Inplikazioa beharrezkoa da. Gure hizkuntzak, bere horretan utzita, ez du iraungo, kontrako baldintza oso gogorak dituelako. Jendarte bezala, gure helburua izan behar du hurrengo belaunaldiak euskara egoera onean uztea, hizkuntza aniztasunaren testuinguru baten baitan.

Ez dakienari euskara ikasteko beharra sortzea baldintza garrantzitsua da. Beharra baldintza garrantzitsua da eta hemen belaunaldi berri asko euskaldundu da beharraren ikuspuntu horretatik. Zilegi da euskara beharrezkoa den testuinguruak sortzea. Gakoa da nola transmititu hori jendeari, nola ulertarazi euskara ikastea proiektu

handiago baten baitakoa dela, garrantzitsua dela eta beharrezkoa. Neurriak, denborak eta tarteak adostu beharko dira.

Esan duzunez, euskarak aurrera egingo badu horren ardura denek hartu beharko dute; dakitenek eta ez dakitenek.

Horrela da, baina hori minoria guztiei gertatzen zaie. Jendarteko beste esparru batzuetan ere bistakoa da hori; zerbait aldatzeko, denok mugitu behar dugu. Jendea bere horretan eroso dago eta lana egin behar da erosotasun horretatik atera eta mugiarazteko. Munduko hizkuntzen etorkizuna ez da hizkuntza txikien arazoa soilik, munduko biztanle guztiena baizik. Gure hizkuntzaren iraunkortasuna bermatzeko oso ondo azaldu behar da gakoa ez dagoela gudan bakarrik, hizkuntza txiki bat hitz egiten dugunongan. Proiektua ez da hizkuntza txikiei begirakoa bakarrik, orokorra da.

Elebakarren ideologia, hizkuntza nagusiaren ideologia, aldatu beharra dago, eta ez hemen bakarrik, mundu mailako aldaketa bat behar du, ekologiarekin gertatzen den bezala –etengabeko paralelismoak egiten ari gara–. Elebakarraren ideologia aldatu beharra dago. Eleaniztasunaren ideologia munduko bazter guztietan zabaltzen baldin bada, errazagoa izango da tokian-tokian aldatzen joatea.

Horrek konponduko luke Euskal Herrian une honetan euskarak bizi duen egoera? Akaso ez, baina lagunduko luke. Eta lagunduko du. Nazioarteko pentsaerak eragin handia dauka, ekologian bezala, hizkuntza aniztasunean. Zenbat eta zabalduagoa eta indartsuagoa izan aniztasunaren aldeko jarrera, orduan eta aktiboagoa eta baikorragoa izango da hizkuntza txikien aurreko jarrera. Hizkuntza ekologiak ez ditu arazo guztiak konpontzen, hausnarketarako tresnak eskaintzen ditu. Eta gure ikuspegitik, eragina du, hausnarketarako bidea ematen duen neurrian. Bide bat da.

Parean ditugun elebakarrak espainolak eta frantsesak dira, eta jarrera gogorra dute. Hor dago Gaizka Garitanori Almerian gertaturikoa. Estatu espainoleko hizkuntza kultura oso tradizionala da eta egia da eleaniztasunaren aurreko jarrera ez dela eredugarria. Gaztelaniak maila gorena balu bezala jokatzeko dute, eta beste hizkuntzek maila baxuagoa balute bezala. Oso jarrera harroa izaten dute

«Gaur egungo hizkuntzen egoera ez da berez etorri den zerbait, hizkuntza handietako komunitateek egindako ibilbide historiko baten ondorioa da, zapalkuntza baten ondorioa»

«Hizkuntza ahulagoa hitz egiten dugunok oso kontziente izan behar dugu zein paper jokatzeko dugun, aktibatu beharra daukagu. Baina, gainera, gure hizkuntza hitz egiten ez dutenen konplizitatea ezinbestekoa da»

«Minoria guztiek asumitu beharra daukate parean daukaten egoera aldatzeko beharrezkoa dela etengabeko alerta egoeran egotea. Bestela, ez da ezer mugituko»

normalean, gaztelania egokiena, politena, onena... balitz moduan.

Estatu espainolean urte asko kostatzen ari da estatuaren baitan dagoen aniztasuna ikustea, onartzea, ezagutzea... Ezjakintasuna eta mespretxua oso handiak dira, beste hizkuntzak baztertzeko eta zapaltzeko joera hori. Eta horrek eragiten ditu halako jarrera bortitzak. Gaizka Garitanok sekulako elegantzia erakutsi zuen, hitzik esan gabe adierazi zien bere hizkuntza, euskara, haiena bezain baliagarria dela.

Lan handia dago hizkuntza bakarraren aldeko ideologia duen estatuaren jarrera aldatzen, baina badago horretan ari den jendea. Eta minoria guztiek daukaten lanaren tamainakoa da. Badago dagoeneko kultura bakarra, hizkuntza bakarra, ez dagoela konturatzen hasi den jendea, eta hori baikorra da.

Egia da mundu mailan duela 20 urte baino normalagoa dela hizkuntza aniztasunaz hitz egitea. Pixkanaka, gure ustez mantsoegi, baina ari gara. Zenbat aldiz erakutsi behar da zurea bezain garrantzitsua dela nire hizkuntza?

Gaizka Garitanoren jarrera oso txalotua izan da. Baina, maiz, egunerokoan, errazegi errenditzen gara borroka txikiagoetan. Ez da erraza, ohiturak eta jarrerak oso erratuta daude eta horiek aldatzeko oso aktiboak izan behar dugu. Eta, gainera, aliatuak behar dira.

Nik kafetegi batean bi ebaki eskatzen baditut eta beste aldekoak esaten badit ez didala ulertzen, horrek ez dauka batere zentzurik. Goazen horri buruz hitz egitera.

Egia da norberak lan egin behar duela, baina beste maila batean ere lana egin behar da, komunikabideak, bestelako eragileak... sentsibilizazio lana hor dago.

Beti alerta egoeran egon behar da. Hori horrela da eta asumitu beharra daukagu. Minoria guztiek asumitu beharra daukate parean daukaten egoera aldatzeko beharrezkoa dela etengabeko alerta egoeran egotea. Bestela, ez da ezer mugituko. Minoria guztiek daukagu problema berbera. Nekatuta egingo gara? Tira, batzuk akaso bai, baina proiektua ez nekatzekoa da.

Gauzak asko aldatu dira. Ez nahikoa, baina ideologiaren ikuspegitik aldatzen ari dira. Baina kontuz ibili behar da, euskaldunak eta euskaldun ez direnak proiektu berean jarri behar ditugulako. Eta euskaldunei dagokigu motorra izatea.

